



"Superposition"
Iturria: *l'Architecture d'aujourd'hui* N°379

Zaila da turismoaren hastapenari data zehatza jartzea. Grezia klasikoan garrantzi handia zuen aisialdiak —aipa genitzake Olinpiar Jokoak, adibidez—, erromesaldiak —Donejakue bidea gure artean ezagunena— erlijioa helburu zuten turismo-jarduerara gisa azal genitzake, eta turismotzat jotzen ahal dira europar aristokraziak eta ondoren burgesiak egiten zituzten bidaiak, bainu termal eta bainu termal artean gobernazio-irakaspenak jasotzeko.

XX. mendea izan da, baina, turismoaren gorakadaren mendea. Bigarren industrializazioa eta klase ertainaren goraldia direla medio, bere *demokratizazioak* industria indartsu bihurtu du turismoa, munduko barne-produktu gordinaren % 10 izateraino. Eta noski, garrantzi horrek halabeharrez ekarri ditu hainbat asmakizun, ondorio, aje, arazo. Horiek guztiak izango ditugu aipagai eskutan duzun zenbaki honetan, ez baitira gutxi.

Ez dira gutxi arkitektura-objektuaren ikuspuntutik: behar berriak sortu diren heinean, sortu dira behar horien erantzunak, eta aipa genitzake, beraz, bainuetxeak, ferryak, poligono turistikoak, parke tematikoak. Ez dira gutxi ere hirigintza eta lurralde-antolakuntzari so egiten badiogu, turismoaren pisua bistakoa baita lurraldearen garapenean, eta ez beti hitzaren zentzu positiboan. Adierazgarriak dira turismoa jarduera ekonomiko nagusi, ia bakartzat, duten lurraldeak: Languedoc-Rousillon modernoa lehenik, Benidorm eta enparauak ondoren. Gertuago, gure txikitasunean, Bakio eta Zarautz ezin aipatu gabe utzi. Kontrara, azpimarragarriak natura eta tokian tokiko prozesuak turismoarekin uztartzen dituzten adibideak, Zerain, Euskal Kostaldeko Geoparkea edota Norvegia kasu.

Eta azkenik, adibideak ere ez dira falta ikuspuntu soziologikoa-go batetik begiratuta, turismoak errealtatea itxuraldatu eta berriak sortzeko duen gaitasuna ikusirik. Lurralde, hiri eta herrien marka turistikoaren posizionamenduak berebiziko garrantzia hartu duelarik, ezinbestekoa da ondorioez hausnartu eta marra gorriak bereiztea, atrezzo soil bihur ez gaitezen bisitarien begietara. Paris, Bartzelona... sumatzen dira sintomak eredu arrakastatsuenetan ere. Oro ez dela urre, alegia.

Gutxi teorizatu da turismoaren inguruan arkitekturaren ikuspegitik, gizartearen egunerokotasunean duen pisuarekin alderatuz, behinik behin. Are gutxiago industria bezalako beste fenomeno batzuekin konparatzen badugu. Balio beza zenbaki honek hutsune hori apur bat betetzeko.

